

## KOSTUAK

Mendish enpresaren kostuei dagokienez ez ditugu kostu asko izango, izan ere, hasieran esan bezala gure enpresak gertuko jatetxe zein tabernekin egingo du lan, beraz langileak soldata jatetxe edo tabernengandik jasoko dute eta gero gure bezeroei saldutako diru kantitate bat izango da haientzat %40 izango dela kalkulatzen dugu.



Kostuekin hasteko kostu finkoa zein aldakorra edukiko dugu. Finkoarekin hasteko, finantziazioan aipatu genuen bezala gure enpresa ezagutzera eramateko iragarki bat egingo dugu eta horretarako

persona famatu batekin jarriko gara kontaktuan zeini 400€ emango dizkiogun. Kostu aldakorra erosiko ditugun tuperrak izango dira tupper lote bakoitzak 5€ balioko ditu eta bakoitzean 3 tupper etorriko dira. Hauetako 20 lote erosiko ditugunez, hau da 60 tupper, kostua aldatzen joango da eta behar ordaindu behar izango dugun diru kantitatea 100€-koa izango da.

Gure enpresan bezeroek ordaindu behar izango dituzten prezioak baxuak izango dira, "low-cost" teknika erabiliko dugu horrela bezero gehiago erakarri egingo ditugu eta gainera kostuak minimizatu eta guztiz kentzea lortuko dugu bezeroak gure enpresarekiko erakarriak sentituz gero.



Gauzak hobeto ikusi ahal izateko lehenengo hilabetean izango ditugun kostuen taula bat egingo dugu. Lehen esan bezala langileak beraien taberna edo jatetxeetatik izango dute soldata, baina guk gure irabazien %40a emango diegu beraz

demagun lehenengo hilabetean hasierako hilabetea denez erosle asko ditugula eta 30.000€ irabazten ditugula

	PREZIOA	KANTITATEA	GUZTIRA
Iragarkia	400€	1	400€
Tuperra	5€	20	100€
Langileei dirua	12.000€	1	12.000€

Lehenengo hilabetean guztira 12.500€-ko gastuak izango genituzke.